

Zarauzko Liburu Azokak azken nobedadeak erakutsiko ditu

25 erakusle inguru izango dira Munoako Azokagunean

Gorka Erostarbe / Zarautz

Atzo ireki zen Zarauzko Liburu Azoka eta abuztuaren 29a bitartean zabalik egongo da liburu eta disko berriak ikusi nahiz erosi nahi dituenarentzat. Besteak beste, Txil-

lardegiren eta Unai Iturriagaren azken eleberriak eta Fremin Muguruza Dub Manifesten disko berria azpimarratu zituen eskaintza aipagarrienetako bezala, Euskadiko Liburu Azoken Batzordeko ordezkari den Asier Muniategik.



XOUSE SIMAL

25 erakusle inguru bilduko dira Zarauzko Liburu Azokan.

URTEROKO zitari jarraiki, atzo zabaldu zuten Zarauzko Liburu Azoka. Dagoeneko hamazazpi urte bete ditu ekitaldi horrek. «Urte osoan zehar Euskal Autonomi Erkidegoko herrietan ibili ohi

Asier Muniategi

«Irakurtzeko ohiturari ez dutenek, kalean liburuarekin topo egin dezaten saiatzen gara, irakurle berri bat sor daiteke eta»

Gehientsuenak Euskal Herrikoak badira ere, Madrildik, Bartzelonatik, Valentziatik eta Perutik etorritako agertokirik ere bada.

Herrikoen partaidetza ere gogoan izan zuen Muniategik, hala udal fondoei, nola herriko liburu nahi bideodendei dagokionez: azken batean, Muniategiren hitzetan, «liburu azoken kanpainaren helburua, irakurzaletasuna bultzatzeaz gain, herriko talde edo komertzioen partehartzea lortzea baita». Liburu

Azoken Batzordearen proposamena, produktuak saltzeaz haratago doala azpimarratu zuen Asier Muniategik: «irakurtzeko ohiturarik ez dutenek kalean liburuarekin topo egin dezaten saiatzen gara, hortik agian liburu irakurle berri bat sor daiteke eta».

Bestalde, Azoken Batzordeak %10eko beherapenak egitera derrigortzen ditu azokan parte hartzen duten argitaletxe, banatzaile eta liburuden-

dak: «Hau onuragarria da irakurlearentzat, liburuak merkeago eros baititzake eta onuragarri izan daiteke saltzailearentzat ere, ondorenean ere harremanetan jarrai dezakeelako erosle berriarekin».

Azken boladako berrikuntzak

Zarauzko Liburu Azokan garanti berezia izango dute liburu nahiz disko berriek; ekaina eta uztaila partean kaleratutakoek alegia. Ildo horretatik, izen eta lan konkretu batzu aipatu zituen Muniategik: «Euskal literaturari dagokionez, Txillardegiren *Putzu* eleberria ongi saltzen ari da, baita Unai Iturriagaren *Berandu da gelditzeko* eta Iñigo Lamacaren *Gay nauzu* ere». Diskoen alorrean aldiz, Fermin Muguruzaren proiektu berria, eta Alaitz eta Mainerren *Inshala* diskoa azpimarratu zituen. Horiez gain, beti harrera ona izan ohi duten idazle eta musikariek Zarautzen ere arrakasta izatea espero da: Bernardo Atxagak, Anjel Lertxundik edota Benito Lertxundik esaterako.

laburrean

A R T E A

■ Guggenheim Museoa Txillidaren atzera begirako erakusketa luzatzea erabaki du

BILBOKO Guggenheim Museoko arduradunek, Txillidaren erakusketa ia bi astez luzatzeko erabakia hartu dute. Berez, artista donostiarrari eskainitako atzera begirako erakusketa abuztuaren 29an amaitzekoa zen, baina bisitari kopurua ikusita irailaren 12rarte egongo da zabalik. Bisitarien %60a atzerritarrek osatzen dutela azpimarratu dute museoko iturriek.

M U S E O A K

■ Pedro Galera Andreuk musoetara geroz eta jende gutxiago joaten dela baieztatu du

MUSEOLOGIAN aditua den Pedro Galera Andreuk museo bisitarien kopurua jeitsi egin dela adierazi zuen atzo, *Museoak bere historian* hitzaldia ematean. Halaber, instituzioen arteko lankidetzaren eskasegia dela gaineratu zuen. Bere hitzetan, museoei gerta dakiekeen gauzarik txarrenea «aspergarriak eta dinamika gabekoak izatea da».

KOMIKIGINTZA

■ Pierre Christin gidoigileak komikigintza behe mailako artetzat jotzen dela esan du

«ESTATU BATUETAN ez bezala, European komikigintza behe mailako artetzat hartzen dute», adierazi zuen atzo A Coruñan Pierre Christin gidoigile frantziarrak. «Komikia, tresna pedagogiko ona da», bere ustetan.

Guinness folk-rock taldeak bere lehen grabazioa kaleratu du

■ «Zerbait berria eskaintzea» da taldearen asmoa

J. Eskisabel / Irun

IRUNGO Guinness taldeak bere lehen grabazioa kaleratu du, sei kantu biltzen dituen konpektua. Taldea 1995ean sortu zen, folk irlandarreko doinuak eskaintzeko, eta denbora honetan kontzertu ugari eman ditu, horietako batzuk jende ezagunarekin: Ismael Serrano edo The Whiskey Priest taldea, kasu.

Hasten ari diren talde guztiek bezala, aurkezpen txartel gisa autoekoitzi dute lehen diskoa. «Bost urteotan egin dugunaren lagin txiki bat da diskoa», azaldu zuten taldekie deek atzo, diskoaren aurkezpenean.

Zazpi lagunek osatzen dute Guinness: Javier Alvarez (ahotsa eta akordeoia), Raul Calvo (akordeoia eta gitarra), Unai Alvarado (gitarra), Maite Ibargoiien (flauta), Arantza Arrillaga (biolina), Javier Manzano (baxua) eta Sergio Arman (bateria). Folk irlandarra oinarritzat hartuz, bestelako estiloak ere ukitzen ditu taldeak. «Ez gara gaur egun modan dauden folk hutseko talde horietako bat. Tresna tradizionalak erabiltzen ditugu, baina doinuak reggae, ska eta azkenaldian hardcoretik hartzen ditugu», azaldu zuten. Lehen disko honek Celtas Cortos gogoratzten dute sarritan.

Taldearen asmoa epe laburrera da «folken barruan zerbait berria eskaintzea». Horregatik, azken aldian samplek erabiltzen ari dira, «garaikidetasun ukitua emateko folk oinarri tradizionalari». Gaur Colindresen (Santander) joko du Guinnesssek, musika zeltiarrari eskaintzen zaion jaialdiaren barruan.

I G K I M E K E K 33 222

31 x 33 mm 31 x 33 M U L (E z r k r r) E un 2. 2 sl (12 un) 2. H I 1 (2 un) 1.	M E L S . UT M IL EN ZE ITZU NTEG L K NSS II VE 1 1 V.UL-EX. MSV 2 U TE 12 VE CE ES E23 MM U TE 13 EX ESSIS TE V 1. S U TE 75 EX ESS 1 J Y S U TE 75 CL 175 F N 2 U TE 575 IS EN ES KUK I LG ILU K 125 U L K ZU E UT EN S IMENT KU E TZEN U KU M m n .1 E N G 15 T L 15 M U K 7 7
--	---